MIKEL IBARGUREN

joan da negua

Joan da negua

Mikel Ibarguren

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2011 Mikel Ibarguren
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2011ko maiatza
Edizio hau: 2012ko martxoa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Kontxiri
Maiderri
Etxeko guztiei

joan zen uda
eta negua heldu da
GABRIEL ARESTI

ozen esan
negua joan egin dela
ZEA MAYS

1

HAN

han goian ez da hemen behean bezala
han goian da gure izar uxoa erretinak lehertzen
desio ezkutuenen azken printza eternitatea
destilatuz
begirada galduen zeruertza
han da aurrera egiten jarraitzeko
arrazoi guztien momentua

ekaitzaren ostean sortzen da ametsa
zeruaz bestaldeko goi lautadetan
oroz gain bakarturik
memoriaren kutxa beltza arakatzen dut
oroitzapen urrunak aurki ditzadan

han goian itsutu egiten gaitu arturratzeak
taupaden denbora mineralak ezdeus bilakatzen
garenak eta ez direnak garela sentiarazten du
itzalak hausten hasi aurretik

han goian beste altuera bat du pentsamenak

EZ DA INOR AGERI

muga ezarrien presentziak ito egiten gaitu oraindik
handik esnatu gara amesgaizto honetara
ez da inor ageri argiaren haraindian
ebakuatu egin dituzte begiradak
begiak husteko abisua eman ostean

ilunpean gabiltza bakardadezko izozmendien kontra
amaraunetik aska ezinik
elkarren haztamuka
hitzak ere zauri ditugun
gorputz hautsion barrenean

lehen elurtearen ostean
ez da oraindik inor jaio gure eskuen uberara

urratu dira arrakalak
aho batez

ATERPE BAT

elkarren berri izan genuenetik
ezkutatzen gara harresion mintzetan
norantza berrietara boga eginez

alderik zailenak hartuta
berregin genitzake behialako lotura ezinduak
babesgabe sentituko garen bakoitzean
aterpe bat dugu aldarrikatuko
ukabilka behar bada ukabilka eginez
gaitzespen beharrik izan gabe

badakit ezerezean galduko direla ahots horiek
amilduko naizela gau hotzera
irrien negutegiak altxaraziko dituztela
inguratzen gaituzten lubanarroetan

ez izan zalantzarik
bakarrik bazaude
dei nazazu
maiteago zaitudan zenbakira

OHEBURUKO BERBAMINAK

İrekitzera doan zerumugak
ez dakit zer ekarriko didan gaur

zelatan dituzten bebarruak itxi egin dituzte
diosalik ez da jendearen agurrean
hiztegi berria darabilte ahoan

eguzkia ez da gehiago
sortaldetik aterako
diote

guregana datozen urrats arrotzak ezabatuz
azti ibili beharra dago
helburu isilen gordetegira egin ahal izateko

gaur berbaminez oheratuko naiz
aukera galdu bat gehiago zerrendatuz
aukera galduen zerrendari

ETORRIKO DIRA

azken egunotako korapiloak
estuegi dira zintzur bueltan
ahazmenaren erro sakonak
burmuinetik erauzi ahal izateko
egun nire zoriontasunaren indizea
ez dator bat zurearekin
baina noizbait etorriko dira aldi berriak
inon sustraitu gabeko iraganminetik libro

hemen zeharkako sohornetan
bata bestearengandik iheska bizi da jendea
ezin dugu geuk ezarri mugarriez gain egin
ezin gara jausi ilusio galduen putzura
eta unean uneko aldarririk egin ezean
zalantza egiten dut ez ote dugun jarraituko
oin isilduen orpoetara loturik

nik ez daukat beste aukerarik
zein da zure hautua?

PENTSAMENDU BERRIAK

denok gaude geure garaien mende

eztul zaharrak eztarrian ditugula jaikiko gara
hondartza hezeak ferekatzera
ukatuko dizkiguten biharrak borrokatuko ditugu
iragarpen guztien kontra ekinez
bestelako norabideetara errendituko
egun honek arrotz hartu arren

asteak akatsez beteta datoz hilabeteen orrietara
beste nonbait sortu bagintez ere
herri honetara ginen noizbait jaio
begiak sortaldeari emanez

isilune guztien ibai ahotik bueltan
gogoramen soilak ez digu ezer bermatuko
ez digu ezer ziurtatuko
iraganean gatibu egoteko bada

pentsamendu berriak ereiten ditugu orain
eldarnioak sukartzen diren lekutik
zubi azpiko graffitietan berotasunak gozaro ditzagun

minari aurpegia ezarriko diogu
menturaz orbain guztiak ezagutuko
beldurrak galarazi zigun guztia
idatz dezagun
berandu baino lehen

EURIAREN ATZEAN

Zure begirada pentsakor dago
ospitaleko leiho hegian

goizaldean dena dago geldi
denbora barne

euriaren atzean
ezkutatu da eguna

ESNATZE BAKOITZAREN ONDOTIK

beti egongo da
zer gogoratua
zer pentsatua

ideologiak amaitu ei diren honetan
gure itaunak etzidamuetan desagertuko dira
udazkenaren museoan aurkituko ditugu
haizeak ahazturiko hostoak

kale erditik gora helbide gabe bakarka goazelarik
eraman errazagoa egingo zaigu
asteburuko errautsen epela
jakinez ametsen argiak ez direla betirako
ez dela besteren bizkarrik behar bizkar emateko

eskuz esku joan gintezke
ezinezko diren eremuak zeharkatuz
gomuta isilak gordetzen diren ezpondetara
begi bustietako ostadarrak ezabatuko direnean
nire ondoan eduki zaitzadan
hurrengo ezaldia heltzerako

iluntasunaren hegitik ez dakigu
egunsentia hurbilduko den
baina inoiz baino sakonagoa da
beste noizbait bizi izan garen ustea
beste nonbait egon izanaren sentsazioa

urrunetik begira geldituko gara
berri onak heldu bitartean
bihotza arinduko digun albistearen zain

eguzkiari trabarik egingo ez dion
hodeiren bat tarteko
argituko omen du bihar ere

eta esnatze bakoitzean
beti egongo da
zer maitatua
nor maitatua

IPARRAREN ATZETIK

ez zaitut atera nahi lilura horretatik
zorion ukatuen bizkarretik egin izan dugun
bakoitzean
tabernetan ginen gordetzen garai batean bezala
amorruen kristal hautsiak destatzen
ondoezak hartzen gintuenean

garenak garela
iparrak markatzen duen norabidean egin ahal
bagenu
hemendik at beste nonbait lekutu gintezke
etsipenaren argitzaletan oztopa ez gaitezen
galderei erantzunak aurkitzen saiatu

geu gara gure ibilien erantzule bakar
ahalegin guztien babesle
oldozpenak datoz odolustuz sarri
udako ekaitz epelarekin batera
azalpenak emateko asmoz

gelditzen zaigun apurrean
ahapez egingo dugu
gorputz hustuon ondora
ezpain ditugun hunkipenetara
oherako orduan
gaua pixka bat luzatuz
argia hil eta gero

ALDAMENEAN

bihar ere nahi nuke
aztarrenak atera eta
gaur bezalako hautabidea izan
noizbehinka patuari izkin egiteko azken kale ertzetik
ahanzturak harrapa ez nazan zutaz gogoratzean
irriari ezpainak doan emateko

bihar ere nahi nuke
atzo adina kemen bildu
joaten naizen lekura joanda ere
giza-leizea habita dezadan
neguminaren ostean

zure ondoan ez bada
zure ametsen ondoan
berriro esna nadin

BIHOZKADA

Oheratuko naizen bakoitzean
zure berba urratuak osatuko ditut

ahoan dentifriko usaina duzula
lokartu zara goizaldeko ordurik aurreratuenean

eta ni norabiderik gabe
sentipen itsuenen sakonunera murgil naiteke

asteleguna da pentsamenduaren karelean
eta zure hatsak itotzetik atera nau

ez daukat bihotzik gaur
baina maitasun bila ari naiz

etorkizuna ahoskatuko dut
zure begiak ekar ditzan

HARAGO ZAUDE

Itsasoak eta ortzimugak bat egiten duten lekuan
desira bat gordetzen dela pentsatu izan duzu beti
zure jakinminak ez dauka bukaerarik
zeru hustua miatzeari ekiten diozunean

zeure baitan bildurik nigandik aparte zaude
behialako liluretan gogoa ezarriz
abiapuntu berriak dituzketen ahaleginetan zara
tematu
jomuga berriak dituzu zerrendatzen
baina hala ere urrundu egin zara
egun argiz
negutearen kristaldegira

nola diren kontuak

orduz geroztik
zure isiltasunak barrutik jaten nau

ZUGANA

Zuganantz ninderamaten arrastoak
galdu egin dira itsasgorarekin batera
orain ez dakit nora egin nola heldu
Karrika Handitik Duconteniara eginez
zutaz egin dut galde
pentsamen setiatuetan ostatu harturik

Archiluatik behera egin dut azken saiakera
bakardadearen urratsak eta nireak senidetuta doaz
urertzetik gora egin dute
galbiderik ez delakoan
aurkituko zaitudan berme apurrarekin

zuganaino iritsi nahi nuke egun
akorduaren gerizatik aldendu gabe
haizearen hatzak ileetan izan arren
kazkabarrak poltsikoak beteko badizkit ere
zugana egin lerro-lerro
kale itsu honetatik atera nadin
neure zainek lotu aurretik

zugana

begirik bildu gabe

ZURE ITZALA

amesgaiztoak burkoetan ito ostean
espazioak bere lekuan ezarri ditu gauzak
aurpegirik ez duen kristal hutsa da ispilua
hormaren negatiboan agertu da zure siluetaren
itzala

bihotzaren alde honetan nago oraindik
auzoak urratsak galdu ditu
zurezko eskaileretan behera
eta aratza da ekaineko lehen argi bizia
egunaren lehen ukitua
begietan lanbroa duenarentzat

iratzargailu digitalean zazpiak dira
amaitu da nire loaldia
gorputz berean itzartu naiz gaur ere

ALBISTEAK-1

goizeko zortzietarako hamar minutu falta direla
esan du esatariak
goiz bustia dugula gero
“gaixotasun luze baten ondorioz
bart zendu da Karmele Igartua poeta”

goizeko zortzietarako hamar minutu
“olatuen kapritxora
ito arte
bizi ahaleginetan”
irakurri nion azkenengoz

goizeko zortziak akorduaren ezpalean
eta langarrak gure bihotzak busti ditu

tenoreak ez du inoiz
nahi dugun ordua ekarriko

hamar gutxi beti saminaren dialean

ALBISTEAK-2

leihotik sartu den lehen inarra
herabe iragan da alde batetik bestera
gure birikak esnatu berri dira
barrunbe suminduotan
ahanzturaren periferietan

astelehena da
eta albiste txarrak datoz irratitik
gosaltzeko betarik gabe
zugana egin dut
are zuganago
albiste txar horrek
ez zaitzan nire ondotik eraman

IRAUN

iraun egin behar duzu
arrisku guztien gainetik
ukaldien azpitik

iraun ataka gaiztotik eginez
elkarren hondoa haztatuz
arteria nagusiak kausitu arte

hazion minberak jasoko ditugun arte
ezkutuan ditugun garrasi-aiztoak
jasanezin direino

iraun gogo zartatuokin
bularretako armarri pitzatuak
harrietan fosildu arte

ezinaren arroiletatik irten arte
harea idorrean
erbesteak desegiten direino

nahi duzun guztia
baina iraun
uhinen ahoskeran itzultzen zaren arte

2

BAGARAMATZAN BIDEA

bideak beti darama zerbait berarekin
bidea ez dago inoiz geldi

lehen urratsaren ondotik dator bestea
egun bakoitzak narama bestearen bila
pausoaren norantzak ez du helmugarik
barnebidean doanarentzat

begirada baten ortzimuga ikusi dut hurren
badoanak badaki zer hartu behar den
zer utzi behar den
distantzia oro neurtuz ezarriko da abian
sentipenen kiromantzia ikasiz
bihotz-karobiak itzali beste aukerarik gabe

egunero da hasi beharra
urtaro guztiak zeharkatzen dituenarentzat
badoana atzera begiratu gabe doa
urratsa bideari segika

bideak beti darama norbait berarekin
bidea ez doa inoiz bakarrik

NEURE KOLKORAKO

bakarrizketa baino ez da hau

etengabeko hausnarketan murgilduta
iragan den urte hondarretik
berbok baino ez ditut elikatzen
eta ez dut ezer esateko neure kolkorako ez bada

batzuetan akigarria da hasperen ezinduetan
inoren babesik gabe ibiltze hau
ereite berrien aiduru egon beharra
deslekuan loak hartu ezinez

saminaren hiriburuan bizi naiz egun
ikararen deklinabideak osatzen
erdizka irauten dut aspaldion
flakeziaren orrazian desitxuraturik
besarkadetan estutzen gomutarik zaharrenak
beste aukerarik izango dudan jakin gabe

idatzi gabeko adioetan bilduko ditut
musuen inperfekzio malenkoniatsuak
kantu berriak osa ditzadan

neuretzat ari naizelarik
ohartu gabe gatibu gelditu naiz amaraunean
ukaldi guztiak inarrosiz

gauak zer pentsatua ematen dit

APIRILAREN IRAGARPENA

egunak argia erein du goizean goiz
ezpainak hutsetik ernatu dira apirileko aldirietan
izarazko bizkarrak urratu nahirik

zure ahoaren mindurak
nire sentimenduen zirrara eragin du
zugan duzun emetasun guztia
nire sabelpean joaldun dabilenean

maiteminez duindu ditugun desirak
gaizki itxitako poroen zaurietan larrutu dira
gure haragi biziak irekiz

apurka deseginez doazen itzal bi baino ez gara
isiltasunaren iragarpenean errotuz
eta zure gorputza amaitzen den lekuan
hasten da nirea

hitzorduak azkentzen diren teilatu zulatuetan
nire ondoan zaude baina urrun hala ere

kaosaren teoria guztien gainbeheran
beti geldituko da
musuen higaduran berpizteko aukera

ETORRI BEZALA JOANGO NAIZ

gogoan ditut denboraz besteko helbideak
badakit non igarotzen dituen gauak egun guztiak
ezagutzen ditut sentsazioen partitura idatzi gabeak
itsasgorak noren belaunak bustiko dituen
galderak burmuinaren zein aldetan metatzen diren

zure iragana ikusi dut arrotz diren lautadetan
beste jite bat dakar orain zure ahoak
eta garai txarren izotz-aroa lurmendu zenetik
etorri bezala joango naiz
hitzaz beste egitera zorionaren aldirietara
lur elkorrak oroituko nauen haragora

arazoek gainezka egin dute uhalde hauetan
zuhurtziaz ibiltzeko agindua zabaldu duten arren
ez nazazu ekarri gaur alde honetara
utz nazazu oroimenaren bestaldean
ez izaten

ARGI-ITZALAK

Zuri so nago
ohe ondoko aulkian eserita

nigana egin duzularik
iragan mendetik zatozela dirudi

argia eta itzala
nahastu dira gelaren ertzean

isiltasunak batzuetan
zerbait esan nahi du

SEINALEA

arnasa hotzaren sakoneratik iritsi zara
gautze ororen zantzutik seinaleak bidaliz

taupada sakonenak entzuten diren barrunbetik
goroldioaren denboran barnebildua

nola esan
sentipenek ez dute azalpen beharrik

ispiluan zure aurpegia sortzera doa
fereka gosez

BARKATU BAINA

neguak ez du zertan
elurra ekarri

esan gabeko hitzak
oldartu egin dira aho itxietan

gauaren bestaldeak eguna zor dio
itxaropena aldarrikatzen duenari

barradera berriak egin behar dira
desolamenduen geldiarazteko

barkatzeko ahaztu egin behar dela diote
ahazteko barkatu behar den jakin gabe

maitasunak ez du zertan
amore eman

ZURETZAT GORDEA

badut zuretzat zerbait gordea
izu lokartua asaldatzen denerako
elkarrengandik elkarrengana egingo dugunerako
eserleku bat ondoan norabait egin dezagun

ez dakit zenbat edo nortzuk izango garen
euritan ekandu zapatek iraungo duten
asmatuko ote dudan zure begien ekialdera egiten

baina hala ere badut zuretzat kaligrafia berria
bizipoz minimalista barruan bildua
ahosabai urduria eta oinazearen erretratua

haize-arrosak markatu norabidean
egingo dut itsasbeheren ondotik
laino itsuaren bestaldera
mundualdi berri bati ekin diezaiodan

badut oraindik ere beste egun baten hazia
haizearen hotzikara bizkarrezurrean
hizki bustien euri txikia tantaka
azalaren ezkata idortua bainugelan

badut zuretzat denbora beteago bat
ahurrean gordea

EGUNEN BATEAN

egunen batean
bertakoak izango ez garenean

aurrera egingo dugu harat-honat
noraino hel gintezkeen jakin gabe
ahalegin hutsalduen bermeak aurkitu ezinik

itxaron ezinezko abiada honetan murgildurik goaz
bertakoa ez balitz bezala so egiten diogu
bizilagunari
amaren galtzorratzetan gara josten oraindik
edo haurrak esnatuko diren beldur lokartzen
goizeko ordu bietan

laneko arropak erantzi ostean
besterriratzen zara nigandik
ele astunen eraman zaila barneraturik
atzenduak ditugun lorbideak berreskura genitzake
begirada zulatuetan babesteko
soldaduak lubakietan bezala

inolako pasahitzen beharrik gabe irekiko ditugu
ateak
bata bestearen atzetik joango gara orpoz orpo
kale galduen iragana gogoratuz
eta bertakoak ez bagina bezala egingo digute adio
Zubimusu auzunetik Kale Okerrera egitean
Kale Erdira sartuko garelarik

gure ahoez haraindi egingo dute kale-izenek
gure zainek Bidasoatik Urumeara egingo dute
handik Oriara eta azkenik Urolara
jendez hustu zaizkigun barruak
habitatu beharko ditugu ezinbestez
ez gara etsituko urruntasunaren alokairu hauetara
ez gara ohituko esamesen zurrumurruetara
ez dugu hezur ahulagoetan ezarriko gorrotoa
ez dugu gezur gordinetan ezkutatuko oroimina
zure oroitzapenean gure leku-izenak
bizirik dauden artean

bertakoak izango ez garen
egunen batean

GOGOAN DUT

jasandako guztia jasan ondoren
gau zuriaren ostean amodio eske
etorri zen zure soaren galarrena
ez zen desira ezpalduen hutsunea soilik
aspaldian sentitu gabeko barne dardara izan zen
ozeanoak ur tanta zirudien begiaren sakoneran

leihora egin genuen begiraden bila
eta albo-kalteak zerrendatu
baina mezu galduen arrastoak baino ez genituen
aurkitu
ezpain anonimoetan kresaldurik

ez genekien nondik agertu zen ilargiaren aztarna
non ernatu zen goiz alba
izateko arrazoirik bazuen geroak
mindurak noiz arte iraungo zuen

izugarria zen ilunabarraren hurbiltasuna
euriaren usain hezea
hodeiak doluminez zetozen gure gainera

horixe baino ez dut gogoratzen
horixe eta zure ahots zilarra utopiaz galdezka

AHOZKOAK

ahozkoa da zure lehen aztarna
begi irekia, gerria

ahozkoa ere debekuaren ederra
gezurra eta egia, memoriaren abaroa
barkamena, diosala, muina

ahozkoa da zure maitasuna, nekadura
negarra, irria, jolasa
ezezkoa eta baiezkoa

ahozkoa da zure deitorea
ezin biziz minbizitzen zarenean

HITZ MALUTAK

eskuotatik sortu ferekez
haragituko dizut larrumintza

zure sentsazioen burdina urtua
bilduko duen arragoa nauzu

elur berriaren maluten antzera
helduko naiz
hitzez hitz

ESPERANTZA

aldartez zure esperantzak
ez dakar mezurik

bestetan zure mezuak
ez dakar esperantzarik

eta askotan galdua sentitzen naiz

ESAN BEHARRA

hamarkadaz hamarkada heldu gara
iragankume izatetik
biharko eguna fruitu umotua bailitzan ukitzera

orain eremu laiotzak sumatzen dira
ilundi arpilatuen zimenduetan
eta amodio horien esangura ulertu orduko
hurbiltzen gara amildegiaren ertzera
desiren meandroetan murgilduz

ezin zuen bestela izan
zure sustraiak ikusi ditut
oinazearen epidermisean hazten
eta min dagit ez esateak

HONANTZA

esan bezala hona behar duzu egin
kontsolamenduaren himnorik ez bada ere
zorigaitzaren behin-behinekotasuna alboratuta

hona egin gura duzun tokitik
hondarpetik ateratako oinazpiak kilimatzeko
Erromardiko harea larria galtzerdietan duzula
azalaren pigmentuan hatz mamiak kolorezta
ditzazun

gerrietara lotutako jertseen besarkada bezain
estua nahi nuke zure besoena
gure zainen lehia noiz amaituko den ez dakigularik
gudate berriek erasoko gaituzte baina
inoiz ez bezala gotortuko gara elkarrengana
olatuak hausten diren zokoguneetan babes hartuko
iazko lorratzak noiz lurmenduko diren zain egon
gabe

egin hona buruz dakizun bidetik
gure bizitzen oinarrizko kanpalekua dagoen lekura
zoriontsu egiten nauzun honaindira

ez joan orain
aitorpenen maldan behera
oinutsak nire ondoan utzita

BAT ALA BESTE

Orpoz orpo
labana bezain hotz burua
han edo hemen
joan edo gelditu

bietarik bat

ahantzi edo gogoratu
zure izena zure gorputza
bizitza ez da eternoa
ausentzia bai ordea

ARRASTU ORDUKO

beste norbaiten lekuan ezartzeko ezbaian nenbilen
neuk bakarrik egin dezakedan froga enpirikoa
bailitzan
larritasunaren aurreko egoera ez da simulakro hutsa
izan
eta nabilen lekuan nabilela
zalantzaren labirintoan etsi behar izan dut
esanahi ezkutuenak neuretzat gordez

goizean ekia ateratzearekin soilik ez da nahikoa
izango
zauriaren ezpainak aurkitzeko
gure izenordeen lehen zirrimarrak idazten hasteko
zerbait gehiago beharko da
esperantza begi irekien amets bilaka dadin
urradurak osatuko badira

aldartez nahiago nuke ez ikusi jendearen
indiferentzia
zure izenik ez entzun urrutiko izkinatik
nire deiadar bortitzena ez ahoskatu

baina arrastu orduko
nire burua entregatuko dut zure pentsamendura
nahi duzunean uka nazazun

betidanik hemen egon izan naizen sentipena daukat

3

GALDUTAKO OINATZAK

edozein mugetatik haragoko dena
ahantzi egiten dut nahigabean

horregatik so egiten dut
zure basoaren bihotzean

behin galdu nituen oinatzak
aurki ditzadan

EURI GRISA

ematen du erauntsiak ez duela aterrunerik
maiatzak bat du eta geldi daude
zamaketariak begiradaren azkenportuan

eguraldiaren maparen atzealdean
auto bakan batzuk ikusten dira stop eginda
ez dabil inor kalean hutsik dira aldiriak

hedabideetan alerta laranjaren abisua dantzut
ez dago lilurarik salgai eskaparate handietan
eta desertatuak daude hondartzak
eta ardiak dira itsasoan

gaur ez du aterrunerik euriak
mutu daude eleak ahoaren galbahean
mutu zaude zu argazkiaren oroitean
instantea betikotu nahirik

goian-behean euri sarria
atzean utzitako urratsak bustitzen

ZURE ESKUAK

Olgetan ikusi ditut zure eskuak
haizeak ateratako erroak bailiran
sukaldeko mahaitik leihorantz egin dute
akorde baten mugimenduan saretzen diren
hego hautsiak dira
leunagoak batzuetan latzagoak besteetan

lanpeturik ikusi ditut zure eskuak
nire gabeziak ulertzeko gai diren esku zaintsuak
dira
mintzamoldea ahantzi ez duten esku ezpainkariak
izu guztiak gainditzeko gauza direlarik
maite ditut benaz
nire izena dakiten eskuak

PIJAMA JANZTEAN

Uste baino beranduago heldu zara bebarruan gora
oinetako bustiak erantzi dituzu
eta etxeko epelaren sosegua bilatu
egarbera ibili ostean

indarge iritsi zara aldarte txartuarekin
nekaldiaren izen erauzia ahokatuz
eta zure buruarekin adiskidetu nahi zenuke
azal zaharra eranztean

kimioaren loaren orpondotik
irri akitua sortu zaizu dutxatik irtetean
eta errealitatea den bezalakoa agertu da
pijama janzten hasi zarenean

OINORDEKOTZA

Orain gogoratzen naizela ezagun egin zait
zure ahape urduriaren karabatua
neguaren arkitektura zurizko etorbidea
gaurdinaren ohiko bestordua

egunen batean guztia amaituko delarik
oldozmenak sare-sare egingo zaizkigu ukondoetan
eta urratsak ahituko ordu hilen sakonetan
plazebo efektua duen eguzkia ezkutatu eta gero

ez naiz hitz joko antzuetan gehiago lerratuko
nire barnean metatu diren min-txatalak ditut
erauziko
gabezia honetatik deserrotuko

denboraz gaindiko itxaropena elikatuko dut
garaion iragana desegingo orainaldia bizitzeko
etor nadin karrikaz karrika goizeko izarrari segika
behetik gorako estratan barna

entzuten ez zaitudan bitartean

ausentziak niregana ditzaket
baina orain ezin zaitut begiratu
besorik gabeko jainkosa bazina bezala
hotz dago zure marmolezko bizkarra
nigan sentitu uste zaitudanean
zugan ointustu naizelarik

ez diren gomuten oinordeko zuzenak gara

ITSASARGIA

horizontea zatitzen duen puntu kardinal
bakoitzari so harrapatu nauzu
goizaren kontra-leihoak zabaltzean
bienvenue à la cité de Ravel

adarrean kimua nola
hala ernatu zait akordua gogoan
hodei beltzen itzala ondoan dudala
auzoak bilatzen ditut
ganbara hustuen merkatuan
vide-grenier dimanche matin

ikusmira hobeak eduki arren
inork ez ditu lehenesten talaia hauek
nor gabeko silueta grisak ikus daitezke
kale kantoian hitz eske
eta galtzadarrietako belarrak erauzi dituzten
honetan
errepide-mozketa amaitu dela diosku panoak
merci de votre compréhension

Okineta kaletik
oroimena itsasargi bat da gaur
itzulika ari da gauaren erdian
ez dugu iragarpen hoberik espero
esango dute badela leku bat
mapetan agertzen ez dena
badela zeharkatu ez dugun biderik

soit dit en passant esango dute
biharra dela elkar begiratzeko duten ispilua
ekaitz guztien gordetegia dela zerua
lurra dela argiloaren azken aterpea

eta gu
egunsenti batetik bestera goaz
elkar galtzeko beldurrez

ETSITZEN EZ DUTEN DESIRAK

itsasgora bakoitzaren ondotik
urak berez etorriko dira baztertuen irribarreetara
gauzak sobera aldatu ez diren arren
ez dugu aiduru egon beharko
mende honen amaiera arte
suaren erdian harresien bestaldean
mezurik gabeko naufragoen antzera

iraganaren sasiak hartu du ahazmena
ezereza nagusi den errebal haietan
inularra heltzean joango gara
sarrailak gakotzen dituen jendearekin
debeku guztien gainetik
hausturak osatuko ditugu ibili-ibilian
gorputzak berreginez elkarren gogaide izanez

neu naiz eta ez beste inor
neure buruaren erantzule bakar
kezkak ditut buruan harrespilan
arnasa estutzen ari zait apurka
odola zait mehetu zainetan

baina oparoa izan daiteke
ereindako desiretatik jaso dezakegun uzta
helburu bihurtu gabeko ametsak gordetzen joateko

errealitatearen gidoian idatzirik dago
mindura gutxien espero denean itzuliko dela
ilargirik gabeko gauerdien eldarniora

ez etsitzen ere badakit

IXTEKO ORDUAN

adokinezko kale hertsiak zelatatzen ditut
isilik dagoen kantoitik
atsedenik hartzen ez duten urratsetan irmotu naiz
ausentziaren alde zaharrean ezkutatu
galtzeko beldurrik ez duten begietan gordez

hamabiak laurden gutxi dira erlojuaren antzokian
zure loaren kadentzia bera izan nahi nuke
galeraren ezpainak dastatu
gelditzen zaigun denbora tartean

barkatzeko baina itxi egin behar duela
esan dit ostalerrak manerak zainduz
nongoa naizen
eta ez naiz galderari erantzuteko gai izan
nongoagoa naizen dakidan arren

NORAEZEAN

egunen joanak jartzen du
bakoitza bere lekuan
ez da gehiago urratsik gelditzen
bidertz abandonatuetan
zabala da erantzuten ez duen espazio urruna
noraezean nabil munduaren periferian
eta garaiz kanpo iritsiko naiz
zure ezpain mutuetara
gauaren muturrean hurbilduko banaiz ere
zure beldurren erlaitzera

patuak nora garamatzan
ezin asmaturik nabil

ZENBAT BIDER

Zure zubiak besarkatzean jakin gura nuke
edonora eramango nauen trenik baden
ihesbiderik baden
desertura doana
zugana doana

pentsamenduak patrikan ditudala
urrutiminen egoitzetara gura dut
baina noraino hel daitekeen bat galdetzen dut
etorkizunaren zabalera zenbatekoa den jakin gabe

zer esan nahi didazun badakit
maiz besteren atoiak garamatza gu ere
alde batetik besterako zeharkaldian
hutsuneak nola bete ez dakigula
egiten dugu aurrerantz horretara

libre izan arren ez zara aske sentitzen
ikusten ez diren mugek osatzen dute zure barrutia
gogoan dut oraindik zure ahotsaren urratua
gogorik gabeko keinu hutsala
horregatik itzuli da soa nigana
erreka-lainotik

etorriko dira
azalpen beharrik ez duten biharamunak
arrapostu gabeko galderez beteta
aingurak altxatzeko indarge

sinets iezadazu
gau beltzaren hurbiltasunak
ederrago egiten du eguna

eta galdetzen jarraitzen dut
zenbat bider hil behar ote den
behin bakarrik bizitzeko

BARATXE

ilargi zuritan etzan zinen suabe
goibeldurak arintze aldera
ondoez horren apatia mendekatu asmoz

jakina da nire atzamarren froga ukaezinak
atzemango dituztela zure gorputzean

ahoak goitika egin du zure aldarria
ezeren federik gabe iratzarri zarenean
itxarote horrek ernegatzen zaitu irmotzen zaitu
nahiz eta indar berriak bultzaka etorri

bizirauteko ahaleginean tematu zara apurka bada
ere
betikotasunaren barne-muinetan urtuz

hauskor da isiltasuna zure oroimenean

ARGITASUNA URRATUKO DUT

Zure behakoa ments dudanetik
elkarkidetzak bildu ezinik ari naiz
jendearen hizketa-gaia atzeman ezinda
jada ez dugu gosaltzeko periodikorik erosten
eta gogora ekar nezakeen oro iragan hutsa da

ilunetik irten eta argitasuna urratu
orbeldurik dauden harrimenak harrotuz
saminaren abezedarioa gaurkotu dugun honetan
atzoko akatsetik dator aztarren hau
eta bakardadean goaz gandu honi trapua pasatuz

begiraden tundretan ez da zuhaitzik ageri
lubaki izandako bizi-ertzetan
hartu dugu ostatu betidanik
ukatutako iratze-bideak aurkitu ezinean
aitzina egingo dugu hemen honetatik
iparrari segika begiz jotako urruntasunera

garaiotan ez dut asmo oneko hitzik gaiztotu nahi
ez dut horma-belarrik utziko
nire tristuren arrakala zapartatuetan

azken agurren lurralde laiotzetan
ilunetik irten eta argitasuna urratuko dut
garai berrien bila

URLOETAN

agian betirako galdu dugu irispidean genuen
jomuga
eta orain ez dago ezer urrutiko urloetan
belaunaldi galduen gerniketan

basamortuaren lur-lehorrean gabiltza geroztik
gabetasunak zamatzen zorion haziak sakabanatzen
helburu berriak buruan sedimentaturik

zeure txarrean atzo baino alaiago ikusi zaitut
baina oroitzapen nahasietan belaizerik gabe gabiltza
hitz geminatuak ezin ikasiz
gero arte guztiei zentzua eman nahirik

ez zaitez harantzago joan
ez dago deus begiradatik lekora
oihumin hau ez bada sastakoak ematen
gauzen ausentzia ez bada itzalak xaxatzen

orain ez dago ezer gure barruko gernikaz
harantzago

berandu da dagoeneko alferrik da
hil ala bizikoa baita bizitzea hemen
hil ala bizikoa hiltzea han

urrutiko urloetan

LUIZIA

batzuek kontrara dioten arren
ez dakit nork esan lezakeen zerbait
zure arnasa itoari buruz
zure gatibutzaren taupots itsuei buruz

substantzia kimikoak besteratzen zaituen aldiro
barruan sortzen den egonezak aldenarazten zaitu
argiak betikotzen diren hemisferio haietara

ez dut zure bisaia ahanzturara egotziko
ez esan nondik datorren minaren luizi hori
non gordetzen den atsekabearen hondalea
ez esan

besarkadek betikotzen gaituzte

BIHARRAREN ARRASTOAK

estuegi duzun jertse horrek bezala
estutzen zaitu batzuetan gaitzaldiak
tumore mikroskopikoak errotu zaizkizu han-hemen
ez dakit non dituzun barneratuak
lotzenago zaituzten kate herdoilduak
gazurezko loaren zaindariak

isilik etorriko da oilaritea
itsasaldiaren ahots gordean barnebildurik
erantzunik gabeko galderen ordua da
zure eskuko arrastoetan
biharra non hasten den nahi nuke ikusi

EGIA TXIKIAK

iraganaren mende gelditu dira hizkera agortuak
betiko itaunak osatzen du zure galdetegia
uneoro hasi behar honek ezgaitzen zaitu
baina noizbait amaitu beharko du zuketa honek
ahapez datozen biharamunek
paisaia ahaztuen akorduetara egiten dutenean

badakit txikiak direla zure egiak
eta agian ez dira egia bakarrak
baina zureak dira zureak

aterpe gabe gelditu gara
baina elkarren anparoa bilatzeko
bada oraindik zabalik den ostaturik
elkar ulertzeko modua egin dezagun
galtze bakoitzak ez dezan
beste galera bat ekarri gure bizkarrera

gerora ere
ezin izango ditugu saihestu mehatxuak
gorputzon lubaki biluzietan
besoen meniak amaitzen direnerako

4

BILUZTEN

bizitzaren alde banatan ezarri gaitu barnemin honek
ilunduran arrakala areagotu egin da
eta hitzarmenik gabeko desioak aldezten ditugu
arnasaren epelera egiten dugun bakoitzean

berba galduaren ondoren isiltzen ari dira
garai bateko kantuen oihartzunak
batzuetan egun honek beste egun bat ematen du
oraindik orain olgeta berrien bila gara hasiko
handik edo hemendik sentimendu sakonenei jarraiki

badakigu bestelako izenak asmatuko dituztela
bularrotan gorde dardarizoak berpiztuko direla
etorriko diren inbernadei eusteko

helduko dira maileguzko udazkenak
hosto gabetzen hasiak
laztanentzat lekua eginez

ahazten jakiteko memoria txarra behar da zinez
horregatik zauzkat gogoan
orbel galduaren antzera gal ez dadin akordua

horregatik zaitut biluzten hostoz hosto
azalaren muinera heldu arte

ITXAROAN

Zuk hozka dezazun daukat biluzik larrumintza

gogamenak ekarri lazturak ahaztu nahirik
jaidura honen sakonera haztatuko dut
ez diot nire buruari zutaz beste egiten utziko
ezin dut orain larritasun hau errendatu
begi-ikara ezkutatu

berantaroan jaio izanagatik
ahots guztien behelainoak zeharkatuko ditut
ez naiz isilgordeka ibiliko ertzetik ertzera
itsumenetik irten eta hondamena saihestuko dut
elkarren amildegia baino
elkarren kartografia osa dezagun

gaur ez bada bihar iritsiko zara
nigana datozen zubiak zeharkatuz

aurpegiaren atzealdean izango nauzu aiduru

HAIZE ALDE

Zure destainak behin eta berriz
makurrarazten nau
luizi honetara

besoetako zainak goraka datoz
odol beroko gorputzak iratzartzean

nabarmena zara
begirada haize alde ezartzen duzunean
nabarmena gero
zure bular jaioberriekin zatozenean

AHUR HUTSAK

aurrez aurre ekarri nahi ditut nire esanak
betzuloetan elurbilduak ditudala dakartzat
oinaze osteko ubera eta odolustearen isuria
zu zara hori uler dezakeen bakarra

ordainik jaso gabe egin nahi dut aldarri
bakeak egin ditut ilunarekin
noizbait pozaren gogoramen apurra
sentitu izan dut bihotz-zolan
eta beti pentsatu izan dut
helburu ederrenak ere baduela bere muga

inork ez daki zenbat iraunen duen hutsarte honek
baina nire ahurrak hutsik daude inoiz ez bezala
debekuaren zigorra ezagutu dute
destainaren indiferentzia nozitu
desioaren orbana laztandu

haatik hutsik daude orain nire ahurrak
eta errugabetu nahi nituzke
errugabetu galtze guztien erruduntasunetik

ITSASOARI BEGIRA

amaiera gabeko ozeanoa
badoa eta badator

aurrez aurre nagoela etengabe datoz olatuak
nire biluztasunaren hondarrera

hegoiak bederazka hartzitzen ditu
gainezkaturiko hodei tontorrak

esperantza dela galtzen azkena diote
horregatik nago egunero itsasoari begira

badakizu nola jartzen naizen horrelakoetan
zuk ondo dakizu nire ahuldadeen berri

gorriz tindatutako ilunabarrean
emadazu eskua eta urrunago helduko gara

BESTE HARAGO BATERA

denborak dena sendatzen duela irakurria dut
sumendi itzalia naiz baina
ziklikoki eztanda egiten duena

hau ez den beste harago batera
egin nahi nuke orainak trukatuz
isiltasunetik hurren dagoen
mintzora etor nadin azken aldian bezala

uste baino zabalagoak dira zaurien kontinenteak
goiz hotzeko abenidetan
eta bakardadearentzat bildutako poemak
guztiontzako poema bilakatu dira paper
zirriborroetan

badakizu ez diodala iraganari itzultzen utziko
ez dut pentsamendu txarrenen gatibu bizi nahi
betiko galzorian babestu nahi

aurrera egingo dut desoren honetan
bideak jarraipenik duen jakin gabe ere

aurrera joanean datorren abiapuntutik
ezinezko muga guztiak zeharkatuz
une guztiak pilatzen diren oroimen itsura

nora gabe beharbada
noraez ziurrenik
asago ahal baldin bada
hau ez den beste harago batera

irakurria dut ezen
badela iparra seinalatzen duen ipar-izar bat
haren atzetik ibilki egiten dut etenik gabe
helmuga jakinik gabe akaso
noranahi eta nonahi
hatsanka

gaur begiek eramaten nauten lekukoa naiz

ITXARONGELAN

diotenez laster jakingo dugu
Richter eskalan zenbatekoa den
larrimin honen eragina
non den artega honen epizentroa
azpiko erroen mugimendu telurikoa

itxarongeletako hitzorduetan
nire zalantzen bazkaleku diren gogoetek
ez dute ez amaierarik ez azken hitzik

hazten ari den izu-laborriari
biopsia egin beharko zaiola diote
bizitzaren eta heriotzaren arteko etena
handitu ez dadin

hasperen aldi bakoitzean
amesgarriak diren garaiak ditut xerkatzen
etorriko diren ikarak garaiz igar ditzagun

argiloaren ostean hausturak osatuz usu
zure bufandaren hotza jantzi dut

eta egunero egiten dut topo itxaropen higatuekin
gertuen dagoen izarrartearekin

dena idatzita gelditu da
ederra izango da mendekua

ZURE ISPILUAN

geure baitan gordetzen dira
haurtzaroan marrazturiko
irlarik ederrenak

egunez egun duinduko ditugu
hitz sotilenen esanahiak
hemen para ditzagun lerroz lerro

noizbait entzun gaitzaten
damurik agertu gabe
ezinduko gara azkeneraino

oraindik orain
galderak beste galdera bat dakar
erantzunen ordez

goizaldean nire burua ikusi dut
zure ispiluan lausoturik
minsor

KAFE BELTZA

kafea eskatu dut *Café de Paris*-en (hutsa)
eguzkia agindu omen dute
arratsalderako (azukrerik ez otoi)

esne-hortzak erori zitzaizkidan garaira itzuli nahi
nuke
zurekin berriro behaztopatu
berbaroak hutsik dauden honetan

zain naukazu azken trena joan zen geltokian
ahazteak harrapatuko ez nauen esperantzan
gertakizun diren alde ilun horietan
ezpainka egingo dugu inoren epairik gabe
guk hautatu norabideari jarraituz

eufemismorik gabe
eseri eta kafea eskatu dut
eguzki berri baten esperoan

42. ATEA

ez dakit zer esan arrangurei buruz
ez dakit zure periferiara
trenik etortzen den paisaiak ekartzera
zu zeu ote zaren zeure baitan dagoena
eta ez beste norbait

ez dakit zure betazaletan
lokartuko diren antxeten begiak
hor jarraitzen duten behialako mugarriek
pausorik gelditzen ote zaizun
ez dakit zer egiten duzun hor
zer egiten dudan hemen

ezinegonaren egonezina saihestu nahirik
orduak pasean doaz ezinbestez
isildu egin dira balizko bihotzon mintzalekuak
eta bakarrik utzi nau gauak

gosari ostean
malurrak utzitako azalak aurkitu ditut
zaborrontzian botata
benetan ez dakit zer esan
—nigan sentitzen ditudan arren—
zure oinaze ezkutuei buruz

ez dakit non den
zure galmendiaren tontor piramidal hori
horregatik ditut izkiriatzen lerrook
loezaren ezinetik

iritsiko da agian bihotzaldi berri bat
guzti hau gaindituko duena
baina uneon eskutik jausitako hitzok baino ez ditut
bere baitan minduak
ezen ez baitakit zer esan
gotorturiko sentimendu hauei buruz
indarge zarelarik nigana etortzen zarenean

berdin dio honezkero
beste egun bat hasia da
erizainak 42. atea zabaldu duenean
eta zer esan ez dakidala nago

AZKEN LERROA

Zugan aurkituko dut
nigan aurkitzen ez dudan indarra

zugan ikasiko dut
hemendik aurrerako alfabetoa

mugagabeko ikuspegia
aurkituko duzu nigan

haraindiko azken lerroa
ikus dezazun

BARRURAKA

globulu zuriek behera egin dutela
eta mikroorganismoen aurkako defentsak
ahuldu zaizkizula esan didate
barruraka zabaltzen den eritasunak
ez dizu atsedenik ematen
odolaren koagulazioa astiro doa
sentipenen mapa antzaldatuak
baino ez dira biharamunak
eta hitzak datoz zure gorputz osotik
gogo biziz desiraz jabetuta
geroztik barrura begira bizi zara
zeure oroitean orbandua
zarakarra azalari bezala

DEITU

deitu utopia nahi baduzu
deitu datorkeen etorkizuna
gaua betirako balitz legez hedatu da
eta nondik norako ahalbidean
elkarrengandik asko urrundu gabe
egin dezakegu harago dagoen azkorrira

deitu ipar-haizea nahi izanez gero
deitu itxaropenaren gramatika
ukazioaren gorabehera amaigabean
zenbat iraungo dugun ez dakigula
uneak igaroan doaz besterik gabe

norabide bereko paraleloetatik landa
geroak zer ekarriko duen ez dakigu
zerua urrunduko den instantean baina
deitu insomnioa amesgaiztoen ifrentzuari

HEMEN

Xede jakinik gabe zoaz
Victor Hugo kaleko espaloian zehar
zubiaren bestalderaino
barnean bizi-irrika duzula

hala eta guztiz ere
egunen joanak
harantzago ezartzen zaitu
honantzago beharrean

noiz edo noiz
hegoaldera egin guran
minberaz gogoratuko duzu
iparraren diosala

aiher zara
eta lehenengo aldiz bada ere
bide honen helmuga bilatzen duzu
harresi urratuen bestaldean
gautze ororen distantziak laburtu ondotik

benetan esatea nahi baduzu
hemen ez duzu
bilatu nahi duzun hori aurkituko
itxaroten duzun horren zantzurik sentituko

hemen ezinak ezinago dira
bakardadeago bakardadeak

GALEREN HEGOALDEA

enarekin batera joan zitzaizun poz hura
itzuliko ote den ez dakizu
ez duzu gehiago kalezuloan luzetsita egon nahi
inoren ohean lorik hartu ezinda maitatzeke egon
nahi

hegoaldera nahi duzu iparra galdu gabe
aldi hutsalen agortea zeharkatuz
lagun ahantzien arrastoak berrituz
egun honen atzetik beste bat etorriko dela jakitun
gure arteko erretena neurtuko duena
beste gutasun bat sortuko duena
jende bat munduz osatua
mundu bat jendez osatua

iparra galdu gabe hegoaldera nahi duzu
aldizka arrats beheran egin
egunero berritzen den bizinahiaz gailendurik
egiten duzu betiko norantzan
eroriaren logikatik zutik jartzeko logikara
garaion testigantza oharretan iltzatuz

galdutako guztia galdua ei dago
bihotzondoetan bildutako galerekin zoaz
baina betiko bidean zara
azkarrago edo motelago baina bidean
edonora gabe seguruenik
inora iristeko asmorik gabe
iparra galdu gabe baina bidean
zurea den bidean hegoaldera

ZOHARDI

nire baitan diren fotogramak erakutsi dizkizut
neure buruaren labarrera hurbildu naiz
eta urrun dabilen nire gogoak ez du itzultzeko
asmorik

ez da inor etorri azken momentura arte
amets amniotikoek ihes egin dute gorputzon
amilbideetatik
eta zure begiradapean eskegi zubia zeharka nezake
jada ahantzi ezin diren oihartzunak isiltzean

orain arte bezala jarraituko dut lohasman
zure so iheskorraren bestaldera
izanaren hegal trakestuak zizelkatzen
berantaroan sorturiko sasoi berria elikatuz bada ere
lantzean behin barneminak beharko ditugu laztandu
larregizko erantzukizunak baztertu
mila galderarekin datorren itsasoari neurria hartu
bestelako ihesbiderik gabe

desgaraiak sortu arrakalak dituzu honakoak
baina hala ere hemen jarraituko dut
bidezidor guztiak amaitzen diren lekuan
ortzimuga honetan
inoiz itzaltzen ez den argi horri beha

zure ondoan ostertz